

KULTURA-  
PROIEKTUAK  
ZUZENTZEKO GOI-  
MAILAKO  
TEKNIKARIA

TXANDA IREKIA



- 1. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen 1978ko Espainiako Konstituzioaren 1. artikuluan, nolakoa da Espainiako estatuaren forma politikoa?**
  - a. Demokrazia parlamentarioa.
  - b. Konstituzio-monarkia.
  - c. Monarkia parlamentarioa.
  - d. Konstituzio-demokrazia.
  
- 2. Zein da erantzun zuzena 1978ko Espainiako Konstituzioaren VIII. tituluaren 141. artikuluan xedatutakoaren arabera?**
  - a. Lurralde-antolamenduari dagokiola, udalerriz, probintziaz, eskualdez eta era daitezen autonomia-erkidegoez osaturik dago Estua.
  - b. Udalerrien gobernu eta administrazioa haien alkateei dagokie.
  - c. Probintzia-mugen aldaketa oro probintziaren autonomia-erkidegoko parlamentuak onetsi behar du.
  - d. Sortu ahal izango dira probintziaz bestelako udalerrri-elkartzeak.
  
- 3. Euskal Herriaren Autonomia Estatuaren arabera, erantzun hauetako zein EZ da zuzena?**
  - a. Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua Vitoria / Gasteiz izango da.
  - b. Euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.
  - c. Euskal herritar izaera politikoa izango dute, Estatu honen ondorioetarako, Estatu lege orokorren arabera Autonomia Erkidegoaren lurralde barruko edozein udalerritan administrazio-herrikidetasuna dutenek.
  - d. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari atxiki ahal izango zaizkio guztiz bere lurralde barruan kokaturiko beste lurralde eta udalerrriak, estatutuan bertan ezarritako baldintzak betez gero.



- 4. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, kontuan harturik zer ezarrita dagoen haren 10.12. artikuluan, Euskal Herriak zertan du bakarreko eskumena?**
- a. Gizarte-laguntza.
  - b. Espetxe-legeria.
  - c. Ingurumena eta ekologia.
  - d. Lan-legeria.
- 5. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, kontuan harturik zer ezarrita dagoen haren 26.1. artikuluan, nork osatuko du Eusko Legebiltzarra?**
- a. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru proportzionalak, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
  - b. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinak, bozketa orokor, aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
  - c. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru proportzionalak, errola-sufragio, bozketa aske, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
  - d. Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berdinak, bozketa orokor, murriztu, zuzen eta isilpeko bidez hautatuak.
- 6. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 49. artikuluan:**
- a. Euskadik Estatuari egindako ekarpena kupo orokor bat izango da, eta kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskadiko Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen estatuaren karga guztiei dagokien kontribuzioa da kupo.
  - b. Bizkaiak Estatuari egindako ekarpena kupo bat izango da, eta kupo hori udalerrri bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskadiko Autonomia Erkidegoak bere egiten ez dituen estatuaren karga guztiei dagokien kontribuzioa da kupo.
  - c. Euskadik Estatuari egindako ekarpena kupo orokor bat izango da, eta kupo hori lurralde historiko bakoitzari dagokionak osatuko du. Euskadiko Autonomia Erkidegoak bere egiten dituen estatuaren karga guztiei dagokien kontribuzioa da kupo.
  - d. Bizkaiak Estatuari egindako ekarpena kupo partzial bat izango da, eta kupo hori udalerrri bakoitzari dagokionak osatuko du. Lurralde historikoak bere egiten ez dituen Euskadiko Autonomia Erkidegoaren karga guztiei dagokien kontribuzioa da kupo.



- 7. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 legearen 7. atalean, zertan dute bakarreango agintepidea Kondaira-Lurraldeetako Foru-Erakundeek?**
- a. Kondaira-Lurraldearentzat interesgarritasuna izan dezaten kultura-sailak sortaraztea eta hoiei eustea.
  - b. Kondairazko, Artezko, Monumentozko eta Arkeologiazko Ondareari bere onean eustea, hori hobetzea, birregokitzea edo, hala behar izanez gero, bilaketak egitea.
  - c. Natura-ondareko gune babestuen administrazioa, Urdaibaiko Biosfera Erreserba izan ezik.
  - d. Elkarte-hazkuntza, emakumea. Haurrekiko, gazteekiko, zahartzaroarekiko, atsedeen eta egurasketarekiko politika, Euskal Herri Osoaren Erakundeek alor hoietan artez ihardutzearen kaltetan gabe.
- 8. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 legearen 14. atalean, Kondaira-Lurraldeen eta hoietako herri-alorraren dirubidetza-iharduna norekin egokituta egingo da?**
- a. Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiarenarekin.
  - b. Estatuko Ogasunarekin.
  - c. Alde bakarrez gauzatuko da, beste ezein Ogasunekin koordinatu gabe.
  - d. Nafarroako Foru Ogasunarekin.
- 9. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Ihardutze Erakundeen arteko harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 legearen 22. atalean, zein organoren ardura da Kondaira-Lurralde bakoitzak Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiari egin beharreko ekarketa kalkulatzeko?**
- a. Herri Kontuen Euskal Epaitegia.
  - b. Eusko Jaurlaritza.
  - c. Kupoaren Batzorde Mistoa.
  - d. Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua.



**10. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, erantzun hauetako zein EZ da zuzena?**

- a. Estatuak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak beren eskumenen esparruan, ezin izango diete toki-erakundeei eskuordetu beren eskumenak gauzatzea.
- b. Auzitegiek egiten dute toki-erakundeen erabaki eta egintzen legezkotasunaren kontrola.
- c. Probintziek eta, hala denean, baita uharteek ere, beren interesak kudeatzeko autonomia berbera dute.
- d. Lurralde-mailako herri-administrazio direnez, eta beren eskumen-eremua kontuan hartuz, zergetako eta finantzetako ahalak dagozkie udalerriei, probintzietan eta uharteetara.

**11. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean:**

- a. Zinegotziak, sufragio unibertsal, berdina, aske, zeharkako eta isilpekoaren bidez aukeratzen dira.
- b. Udal guztietan alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura daude.
- c. 3.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udalerritan Tokiko Gobernu-batzarra dago.
- d. Legearen arabera kontzeju irekien araubidepean diharduten udalerrietan izan ezik, alkateari dagozkio udal-gobernua eta udal-administrazioa.

**12. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, zer administrazio-egintza dira deuseztagarriak?**

- a. Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten dietenak.
- b. Aginte-desbideratze direnak.
- c. Arau-hauste penal baten ondorioz eman direnak.
- d. Arau-hauste penal direnak.



**13. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean:**

- a. Legean ezarritako epe-mugak eta epeak bete beharrekoak dira gaiak izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako agintari eta langileentzat, baina ez gai horietako interesdunentzat.
- b. Legean ezarritako epe-mugak eta epeak bete beharrekoak dira gaietako interesdunentzat, baina ez gai horiek izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako langileentzat.
- c. Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira egun naturalak direla ulertuko da.
- d. Egun bat baliouduna bada interesduna bizi den udalerrian edo autonomia-erkidegoan, eta baliogabea administrazio-organoaren egoitzan, edo alderantziz, baliogabetzat hartuko da beti.

**14. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 84. artikuluan, zein dira prozedura amaitzeko aukerak?**

- a. Ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea – ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu– eta iraungitza deklaratzeari.
- b. Ebazpena bakarrik.
- c. Ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea – ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen badu– eta iraungitza deklaratzeari.
- d. Ebazpena, atzera egitea eta iraungitza deklaratzeari bakarrik.

**15. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 7. artikuluan, eskaera, idazki edo komunikazio batean interesdun bat baino gehiago bada, norekin egingo da egin beharreko jarduna?**

- a. Espresuki adierazitako ordezkariarekin, beti.
- b. Interesdun horiek espresuki edo isilbidez adierazitako ordezkari edo interesdunarekin; ezer adierazten ez bada, berriz, idazkian agertzen den lehenengoarekin.
- c. Espresuki adierazitako interesdunarekin egingo da beti, eta ezin izango da ordezkari batekin egin.
- d. Interesdun horiek espresuki adierazitako ordezkari edo interesdunarekin; ezer adierazten ez bada, berriz, idazkian agertzen den lehenengoarekin.



**16. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan:**

- a. Administrazioaren xedapen orokorren aurka errekurtsua aurkeztu daiteke administrazio-bidean.
- b. Administrazioaren xedapen berezien aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.
- c. Administrazioaren xedapen orokorren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean.
- d. Administrazioaren xedapen berezien aurka errekurtsua aurkeztu daiteke administrazio-bidean.

**17. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen ondorioetarako:**

- a. Sektore publikoko kontratutzat joko dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek kostu bidez egindako kontratuak.
- b. Euskadiko foru-aldundiak eta lurralde historikoetako batzar nagusiak ez dira sektore publikoaren ataltzat joko beren kontratazio-jarduerari dagokionez.
- c. Sektore publikoko kontratutzat joko dira Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateek egindako kontratuak, baldin eta doakoak badira.
- d. Sektore publikoko kontratutzat joko dira organismo autonomoek, unibertsitate pribatuek eta agintari administratibo independenteek egindako kontratuak, baldin eta doakoak badira.

**18. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 19. artikularekin bat:**

- a. Isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, BEZik gabe 100.000 eurotik gorako balio zenbatetsia dutenean, erregulazio harmonizatuko kontratuak dira.
- b. Isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, BEZa barne 100.000 eurotik gorako balio zenbatetsia dutenean, erregulazio harmonizatuko kontratuak dira.
- c. Isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, balio zenbatetsia edozein dutela ere, erregulazio harmonizatuko kontratuak dira.
- d. Isilpeko edo erreserbatu deklaraturako kontratuak, balio zenbatetsia edozein dutela ere, ez dira erregulazio harmonizatuko kontratuak.



**19. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean ezarritakoarekin bat:**

- a. Oinarrizkoak eta apartekoak dira funtzionarioen lansariak.
- b. Hirurtekoak aparteko lansariak dira.
- c. Aparteko zerbitzuengatik gain sariak oinarrizko lansariak dira.
- d. Soldata oinarrizko lansaria da.

**20. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak oinarrizko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen dizkie Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei:**

- a. Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea, nahitaezko ikastaldian bakarrik.
- b. Bilkuretan euskaraz egiteko eskubidea, baina soilik administrazio publikoarekiko harremanen eremuan egiten badira.
- c. Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- d. Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskeraz aritzeko eskubidea, baina soilik administrazio publikoarekiko harremanen eremuan egiten badira.

**21. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailean, zeinaren bidez onesten baita Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina:**

- a. Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren xedea da Bizkaiko Lurralde Historikoko sektore publikoaren aurrekontu-araubidea, ekonomia- eta administrazio-araubidea, kontabilitatearena eta kontrol exekutibo fiskalaren araubidea arautzea.
- b. Foru araua ez zaie Batzar Nagusiei ezarriko, horiek autonomiadunak baitira aurrekontuen arloan.
- c. Foru erakunde autonomiadunak foru dekretu baten bidez sortu eta iraungiko dira.
- d. Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek ez dute nortasun juridiko berezirik beren erakunde sortzailearenetik.





**22. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 4. artikuluan, zein da Bizkaiko Lurralde Historikoko herriaren ordezkarietako eta partaidetzako organo goren?**

- a. Batzar Nagusiak.
- b. Foru Aldundia.
- c. Eusko Jaurlaritza.
- d. Batzar Nagusiak eta Eusko Jaurlaritza.

**23. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 63. artikuluan, foru-administrazioaren izaera orokorreko xedapenak zer arauemate-hierarkiari lotuko zaizkio?**

- a. Foru arauak; Foru Aldundiaren Foru Dekretuak; Diputatu Nagusiaren Foru Dekretuak; Foru Aginduak.
- b. Foru arauak; Foru Diputatu Nagusiaren Foru Dekretuak; Foru Aldundiaren Foru Dekretuak; foru aginduak.
- c. Foru arauak; Foru Aldundiaren Foru Dekretuak; foru aginduak; Diputatu Nagusiaren Foru Dekretuak.
- d. Foru arauak; foru aginduak; Foru Aldundiaren Foru Dekretuak; Diputatu Nagusiaren Foru Dekretuak.

**24. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2004 Legearen 3. artikuluan, hauetako zein EZ da lege horren printzipio orokorretako bat?**

- a. Ordezkaritza proportzionatua.
- b. Aukera-berdintasuna.
- c. Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
- d. Ekintza positiboa.



**25. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren arabera, ordezkaritza orekatua dago baldin eta egoera edo errealitate batean, bere osotasunean hartuta, sexu biek gutxienez ere ordezkaritza hau badute:**

- a. % 40
- b. % 45
- c. % 50
- d. % 35

**26. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 18. artikuluekin bat:**

- a. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko beti behar da motibazioa.
- b. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko ez da behar motibaziorik, baina bai interesdun izaera egiaztatzea.
- c. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko ez da behar motibaziorik, ezta interesdun izaera edo bestelako eskubide edo interes legitimorik egiaztatzea ere.
- d. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko ez da behar motibaziorik, baina bai eskubide edo interes legitimoa egiaztatzea.

**27. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 6. artikuluan, zein da Europar Batasunaren funtsen kontura finantzaturiko diru-laguntzen araubidea?**

- a. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua.
- b. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren garapen- edo transposizio-arauak.
- c. Kasuan-kasuan aplikatu beharreko arau europarrak eta halakoak garatu edo tokian-tokian txertatzeko arauak.
- d. 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.



**28. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9.2. artikuluan, salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko diru-laguntzak emateko organo eskudunak zein dira?**

- a. Foru Aldundia, Ahaldun Nagusia eta foru diputatuak.
- b. Foru Aldundia eta Ahaldun Nagusia bakarrik.
- c. Ahaldun Nagusia, Ogasuneko foru diputatuak eskatuta.
- d. Foru Aldundia, Ahaldun Nagusia, foru diputatuak eta Foru Administrazioako zuzenbide publikoko erakundeetako organo eskudunak.

**29. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera, diru-laguntzak norgehiagokaren bitartez emateko prozeduran:**

- a. Organo eskudunak onarturiko deialdiaren bitartez abiatuko dira, betiere, Administrazioaren kabuz hasitako prozedurak.
- b. Ezin izango da zenbait agiriren ordezkatzaileren erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu, diru-laguntzari buruzko arau berariazkoaren arabera.
- c. Gehienezko epe hori ebazpenik jakinarazi gabe igaroz gero, interesdunek zilegi izango dute diru-laguntza emateko eskabidea administrazio isiltasunez baietsi dela ulertzea.
- d. Organo eskudunak prozeduraren ebazpena jakinarazi ondoren, hamabost eguneko epea egongo da ebazpena onartzeko, eta epe hori beren-beregiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isilbidez onartu dela ulertuko da.

**30. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera, diru-laguntzen itzulketari dagokionez:**

- a. Administrazioak itzulketa aintzatetsi edo likidatzeko duen eskubidearen preskripzio-epea bost urtekoa izango da.
- b. Preskripzio-epearen zenbaketa ez da etengo edozein motatako errekurtsioak jartzeagatik.
- c. Prozedura izapidetzean, nolana ere, entzunaldi-eskubidea bermatuko zaio interesatuari.
- d. Itzulketa egiteko prozeduraren ebazpenak ez dio amaiera emango administrazio bideari.



**31. Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 52. artikulua araberan, diru-laguntzen arloan zein dira arau-hauste larriak?**

- a. Funtzen erabileraren justifikaziorik eza, justifikazioa aurkezteko epea amaitutakoan.
- b. Gastuak frogatzen dituzten kontuak zehaztu gabe edo osatu gabe aurkeztea.
- c. Frogagiriak edo agiri baliokideak gorde behar izatearen betebeharra ez betetzea.
- d. Finantza-kontrolako jardunei aurre egitea, eragozpen edo aitzakiak jartzea, edo ezetza ematea.

**32. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12. artikuluan, Bizkaiko Foru Administrazioan diru-laguntzak emateko organo eskudunak direnei zenbait eskumen-muga ezarriko zaizkie laguntzen zenbatekoa dela eta. Hori kontuan hartuta, zein da erantzun zuzena?**

- a. Ahaldun Nagusia: 500.000 euro baino handiagoak ez diren diru-laguntzak edo laguntzak.
- b. Foru-diputatuak: 18.000 euro baino handiagoak ez diren diru-laguntzak edo laguntzak.
- c. Ahaldun Nagusia: 320.000 euro baino handiagoak ez diren diru-laguntzak edo laguntzak.
- d. Foru-diputatuak: 30.000 euro baino handiagoak ez diren diru-laguntzak edo laguntzak.

**33. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 55. artikuluan, diru-laguntza ematen duen organoak justifikazioa aurkezteko ezarrita dagoen epea luzatzea erabaki dezake, baldin eta oinarri arautzaileetan horren kontrako ezer ezartzen ez bada; nolana ere, luzapena emateak ez ditu hirugarrenen eskubideak kaltetu behar. Zenbat luzatu daiteke epe hori, gehienez?**

- a. Hilabete.
- b. Epearen erdia.
- c. Epearen herena.
- d. Ezin da epea luzatu justifikazioa aurkezteko.



**34. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 80. artikuluan, itzulketa-prozedura hasteko erabakia onuradunari jakinaraziko zaio, edo, horrelakorik badago, erakunde laguntzaileari; zein epe emango zaio, egokitzen jotzen dituen agiriak alegatzeko edo aurkezteko?**

- a. 10 egun.
- b. 15 egun.
- c. 20 egun.
- d. 30 egun.

**35. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean:**

- a. Fundazioak irabazi-asmoko edo irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, fundatzaileek hala nahi izan dutelako beren ondarea interes orokorreko helburuetara lotuta dutenak modu iraunkorren.
- b. Pertsona juridiko publikoek soilik izango dute fundazioak eratzeko gaitasuna, baldin eta zuzkidura osatzen duten ondasun eta eskubideak, «inter vivos» edo «mortis causa» egintzen bidez, dohainik xedatzeko gaitasuna badute.
- c. Fundazioek interes orokorreko helburuak izan behar dituzte. Besteak beste, euskal hizkuntza- eta kultura-aniztasuna.
- d. Pertsona fisikoek soilik osatu beharko dute fundazioaren patronatua.

**36. Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean xedatutakoaren arabera, zer jaso behar dute elkarteen estatutuek?**

- a. Presidentearen eta idazkariaren izendapena.
- b. Diruzainaren eta, hala badagokio, kide anitzeko gobernu-organoko kideen izendapena.
- c. Elkartea sustatzen duten pertsonen izen-abizenak, pertsona fisikoak badira; izena edo sozietatearen izena, pertsona juridikoak badira.
- d. Elkartearen xedeak eta jarduerak, zehatz azalduta.



**37. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuan (haren bidez, Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen da), onura publikokotzat jotzeko eskabidea:**

- a. Behar bezala sinatu beharko du elkarteko idazkariak, eta hor elkartearen izena eta gainerako erregistro-datuak adierazi beharko dira.
- b. Eskabidearekin batera aurkeztu behar da aipatutako elkarteak gutxienez azken hiru urtean egin dituenen memoria.
- c. Eskabidearekin batera aurkeztu behar dira bukatutako azken bi ekitaldi ekonomikoetako urteko kontuak; honako hauek jasoko dira bertan: balantzea, emaitzen kontua eta memoria ekonomikoa.
- d. Eskabidearekin batera aurkeztu behar da aipatutako elkarteak gutxienez azken bi urtean egin dituenen memoria.

**38. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Jabetza intelektualari buruzko legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan, zer EZIN du egin autoreak?**

- a. Irispidea izan obraren ale bakar edo bakanera, hura beste norbaiten esku dagoenean.
- b. Obra merkatutik erretiratu, bere iritzi intelektual nahiz moralak aldatu izanaren ondorioz.
- c. Nahi duen guztietan obra aldatu, hirugarren batzuek eskuratutako eskubideen gaineratik.
- d. Jendarteratze hori izenorde edo zeinuz egin behar den zehaztu.

**39. Ondorengo baieztapenetatik, zein da zuzena, obra izengabeen ustiapen-eskubideen iraupenari dagokionez?**

- a. Egilearen bizi osoa.
- b. Hirurogeita hamar urte, obrak zilegi den moduan jendarteratu zirenetik hasita.
- c. Beste epe batzuk daude 1800 baino lehen hildako egileen obren eskubideei dagokienez.
- d. Haren heriotzaren ondorengo hirurogeita hamar urte.



**40. Fundación Kaleidos.red erakundearen «Equipamientos municipales de proximidad. Metodologías para la participación ciudadana» argitalpenaren arabera, baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?**

- a. Administrazioek hasitako proiektuez gain, herritarren partaidetzakoa izan daiteke herritarren elkarte edo talde informal batek antolatzen duen edozein ekintza publiko ere.
- b. Parte-hartzeak agenteen arteko loturak eskatzen ditu, eta horiek, posizio desberdinetatik eta beren autonomian oinarrituta, elkarren artean gatazka- eta adostasun-harremanak sortzen dituzte.
- c. Udal erakundeen barruan gero eta kezka handiagoa dago parte hartzeko borondateak eta jarraibideak antolatzeko eta definitzeko.
- d. Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurri buruzko Legeak herritarren parte-hartzea egituratzeko erregelamenduak eta sistemak egitea gomendatzen die udalerrii.

**41. Fundación Kaleidos.red erakundearen «Equipamientos municipales de proximidad. Metodologías para la participación ciudadana» argitalpenaren arabera, agenteen erresistentzietatik zeinek suposatzen du gizarteak egunero aurre egin behar dien arazoek goi-mailako konponbide teknikoa dutela?**

- a. Boterearen kultura.
- b. Kultura teknokratikoa.
- c. Kultura burokratikoa.
- d. Gatazkarekiko beldurra.

**42. Fundación Kaleidos.red erakundearen «Equipamientos municipales de proximidad. Metodologías para la participación ciudadana» argitalpenaren arabera, parte-hartze prozesuaren faseetako zeinek izan ohi du antolatutako agenteentzat parte-hartze murriztagoa eta mugatuagoa?**

- a. Prozesuaren kokapen politikoa eta metodologikoa.
- b. Adostutako diagnostikoa.
- c. Itzulketa eta eztabaida.
- d. Ekintza-plan baten programazioa eta garapena.



**43. John Holden jaunaren arabera, zeri buruz ari gara kulturaren tresna-balioaz ari garenean?**

- a. Erakundeek kultura-jarduerei balio publikoa emateko ezartzen dituzten tresnei (prozesuak eta metodoak) buruz ari gara.
- b. Helburu ekonomikoak lortzeko bakarrik erabiltzen den tresna bat da.
- c. Helburu ekonomikoak, sozialak edo ingurumenekoak lortzeko tresna bat da.
- d. Guga afekzio intelektuala, emozionala eta espirituala eragiteko tresna bat da.

**44. Azken urteotan, zeintzuk izan dira kultura-politika nagusiek jarraitu izan dituzten ereduak?**

- a. Kultura zaintzea eta demokratizatzea.
- b. Identitatea eta irisgarritasuna.
- c. Balio publikoa eta guztion ongizatea.
- d. Eraginkortasuna, efizientzia eta gardentasuna.

**45. Kultur esperientzien dimentsioak, hau da, haiek sortzen dituzten inpaktuak, kontuan hartuta, zein dimentsiori dagokio ekintzara bultzatzea?**

- a. Apelaziozkoa.
- b. Emozionala.
- c. Kognitiboa.
- d. Estetikoa.

**46. Wikipediaren arabera, «gubernantza» terminoa 1990eko hamarkadatik hona erabiltzen da, baina zer izendatzeko?**

- a. Antzeko politikak dituzten gobernuen arteko aliantza.
- b. Estatuaren eraginkortasuna, kalitatea eta orientazio onak.
- c. Sektore pribatuei bakarrik zuzendutako politikak.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.





**47. Kalitatezko kultur kudeaketaren barruan, zertaz ari gara «eraginkortasuna» faktorea definitzen denean?**

- a. Lortutako emaitzen eta erabilitako baliabideen arteko erlazio orekatua.
- b. Helburua lortzeko gaitasuna.
- c. Esperimentazio artistikoaren garapena.
- d. Sormen-prozesu dinamikoekiko lotura.

**48. European Statistical System Network on Culture (ESSnet-Culture) lantaldeak zer proposatzen du prestatu duen 2009-2011 estatistika-ereduaren proposamenean?**

- a. 8 erreferentzia-eremu eta 6 kultura-funtzio.
- b. 10 kultura-arlo, 6 kultura-funtzio eta 5 dimentsio.
- c. 6 kultura-arlo, 10 kultura-funtzio eta 5 dimentsio.
- d. 12 erreferentzia-arlo eta 10 kultura-funtzio.

**49. Chartrandek eta McCaugheyk (*The Arm's length Principle and the Arts*) formulatutako rolen eredu klasikoari jarraituz, zein kultura-politikako eredutan ez dira hain garrantzitsuak txarteldegiko diru-sarrerak?**

- a. Estatu bideratzailea.
- b. Patroi-estatua.
- c. Arkitekto-estatua.
- d. Aktore-estatua.

**50. Zeri egiten dio erreferentzia, nagusiki, *arm's length* deritzon printzipioak?**

- a. Estatuak zuzenean esku hartzeko mekanismoak, kultura-zerbitzuen hornidura ziurtatzeko.
- b. Ikus-entzule mota ezberdinen artean dagoen kultura-aniztasuna edo kultura-aldea baloratzeko mekanismoak, kultura-politikaren eredu bat edo bestea sustatzeko.
- c. Gobernuak ahalik eta gutxien esku hartzea.
- d. Kultur jardueretarako zuzeneko dirulaguntzak.



**51. Administrazio arteko partzuergo bat, berez, kudeatzeko formula bat da, baina zein motatakoa?**

- a. Kudeaketa parte-hartzailea.
- b. Publiko eta pribatuaren arteko lankidetzeta-formula.
- c. Formula publikoa.
- d. Ez dago halako kudeaketa-formularik kultura-politiken eremuan.

**52. Zer programa jarri zuen martxan Eusko Jaurlaritzak 2017an, euskal kultura- eta sormen-industriren arloko enpresentzat, proiektu berrietarako aukera-guneak sortu eta garatzeko, hiru jarduera-ardatzetan: berrikuntza teknologikoan, antolamendu-ereduaren berrikuntzan eta enpresen finantza-gaikuntzan?**

- a. KSI BERRITZAILE.
- b. STEAM.
- c. K8.
- d. SENDOTU.

**53. Zeintzuk dira 2007ko kultur adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko konbentzioak kultur politiketarako zehazten dituen erronkak?**

- a. Zentraltasuna, aniztasuna eta konektibitatea.
- b. Lateralitatea eta aniztasuna.
- c. Sormena, konektibitatea eta aniztasuna.
- d. Zentraltasuna eta sormena.

**54. Kultura eta Kirol Ministerioaren CULTURAbase datu-baseak Espainiako kulturaren kontu satelitea deritzon eragiketa jasotzen du. Zein mailatan sartzten da estatistika-eragiketa hori?**

- a. Zeharkako magnitudeak.
- b. Sintesi-estatistikak.
- c. Magnitude sektorialak.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.



**55. Kultursistema deritzon proposamenean, zein indizetan sartzen da «Enplegua sustatzea» izeneko dimentsioa?**

- a. Jardueraren gaineko eraginak.
- b. Eragin edo inpaktu sektorialak.
- c. Eragin ekonomikoak.
- d. Eragin soziokulturalak.

**56. Vasak-ek 1979an egin zuen planteamenduaren arabera, giza eskubideak hiru belaunalditan banatzea, zer da kulturarako eskubidea?**

- a. Lehen belaunaldiko eskubide negatiboa da (askatasuna).
- b. Bigarren belaunaldiko eskubide positiboa da (berdintasuna).
- c. Hirugarren belaunaldiko eskubide negatiboa da (elkartasuna).
- d. Hirugarren belaunaldiko eskubide positiboa da (elkartasuna).

**57. Alicia Fernández Lópezek idatzitako «Organización, diseño y montaje de una exposición» lanaren arabera, zeintzuk dira erakusketa baten proiektuak gutxienez izan behar dituen oinarritzko hiru zati edo atal?**

- a. Zati kontzeptuala, zati administratiboa eta zati komunikatiboa.
- b. Zati kontzeptuala, zati dokumentala eta zati ekonomikoa.
- c. Zati metodologikoa, zati dokumentala eta zati ekonomikoa.
- d. Zati metodologikoa, zati dokumentala eta zati komunikatiboa.

**58. Kultur proiektuen itzulera soziala ebaluatzeko ereduan, «gizarte-dibertsitatea»ren arloa honako itzulera sozialeko eragile edo faktoreen artean zeinetan aztertzen da?**

- a. Demokrazia eta partaidetza.
- b. Enplegua.
- c. Hezkuntza eta garapen autonomoa.
- d. Gizarte-kohesioa eta -inklusioa.



**59. Kultursistemako agente edo eragileen tipologiaren arabera, zein sektoretakoa da «Herritartasun aktiboa norberaren izenean» deritzona?**

- a. Sektore publikoa.
- b. Sektore soziala.
- c. Laugarren sektorea.
- d. Sektore pribatu-komertziala.

**60. Kulturaren Euskal Behatokiak (2013) egindako kultura sustatzeko politiken izaeraren araberrako sailkapenean, zein motatako fiskalitatea dagokie kultur produktuei?**

- a. Berariazko politika.
- b. Politika unibertsala.
- c. Nazioartekotze-politika.
- d. Kultur diplomaziaren izaerako politika.

**61. *European Expert Network on Culture* azterlanean, Europa mailan kultur kontsumoa sustatzeko politikei buruzkoan, gomendioak ematen zaizkie nazio, eskualde eta tokiko agintariei eta kultura-erakundeei. Gomendio hauetako zein EZ dago jasota gomendio horien artean?**

- a. Trebetasun artistikoei buruzko prestakuntza ematea.
- b. Kultura-erakundeen eta turismo-sektorearen arteko lankidetzaren indartzea.
- c. Funtzionario arduradunei gaikuntza (enpresa-, soziologia- eta komunikazio-arloetako edukiak barne) eskaintzea.
- d. Kultu erakundeetan «Audientzia-administratzaileak» izendatzea.

**62. Zeri dagokio arteen % 1?**

- a. Ez dago halako kontzepturik.
- b. Mailegu publikoen bidezko eskubidea, artistei beren lanak foro publiko eta/edo irekietan maileguan uzteagatik ordainsaria eskaintzen diena.
- c. Eraikin publikoak eraiki, berritu edo handitzeko zenbatekoaren ehunekoak, eraikin horretarako berariaz egindako obra eskuratzeko erabiltzen dena.
- d. Idazleei beren liburuen mailegu kopuruaren arabera ordainsari bat eskaintzen dien ehunekoak.



- 63. Zeri egiten diote erreferentzia *diru-sarrera bermatu* legez ezagunak diren eta batez ere Norvegiar 90eko hamarkadatik aurrera ezarrita dauden sorkuntzari laguntzeko formulek?**
- Lanaren ziozko urtebete eta 5 urte bitarteko laguntzak, proiektu jakin bati lotutako sortzaileentzat.
  - Ezarritako gutxieneko soldataren pareko diru-sarrera, artistaren beraren diru-sarreraren ehunekoak kenduta.
  - Artista legez finkatzeko fasean dauden 35 urtetik beherako artistentzako 1, 2 edo 3 urterako laguntzak.
  - 40 urtetik beherako sortzaileentzako laguntzak, inbertsio-gastuak ordaintzeko.
- 64. *Bazkide sortzaileak* Britainia Handiko programa sorkuntzari laguntzeko politika-eredu bat da, eta zertarako aukera ematen du?**
- Irakasleak eta museo, artxibo eta abarretako langileak biltzea, esperientziak eta ezagutzak parteka ditzaten.
  - Gazteei artistekin eta profesional sortzaileekin lan egiteko aukera ematea, beren ikaskuntza gara dezaten.
  - 7 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteei film laburrak sortzeko aukerak eskaintzea.
  - Arte-eremuekiko interesa erakusten duten ikastetxeetako jardunbide egokiak aitortzen, sustatzen eta zabaltzen dituen sari nazional bat ematea.
- 65. Iñaki López de Aguietak idatzitako «*El plan cultural de un Ayuntamiento de tamaño medio*» argitalpenaren arabera, ekipamenduek lau arlotan duten garrantziaz hitz egin daiteke. Zein dira arlo horiek?**
- Ekonomikoa, kulturala, estrategikoa eta politikoa.
  - Espaziokoa, kulturala, ekonomikoa eta arkitekturakoa.
  - Espaziokoa, kulturala, politikoa eta sinbolikoa.
  - Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 66. Enrique del Álamo Núñezek «*Los espacios de la cultura*» artikulua arabera, Guggenheim Bilbao Museoa zeren adierazlerik handiena da?**
- Kultur ekonomizismoa.
  - Kultur demokrazia.
  - Hirugarren belaunaldiko ekipamendua.
  - Kultur demokratizazioa.



**67. Kulturaren Euskal Behatokiaren «Análisis de modelos de residencias» (2017) argitalpenaren arabera, honako aukera hauen artean zein EZ da erakunde anfitrioiaren ikuspegitik egoitza artistiko bat sustatzeko arrazoia?**

- a. Sareak ehuntzea artista bisitarien eta komunitate anfitrioiaren artean.
- b. Inguruko sormen-sarea garatzea ideiak eta lan egiteko modu berriak trukatzuz.
- c. Praktika artistiko jakin bat bultzatzea esperimentazioa edo trukea sustatuz.
- d. Praktika artistikoa eta arteekin zerikusirik ez duen lana uztartzea.

**68. Kulturaren Euskal Behatokiaren «Análisis de modelos de residencias» (2017) argitalpenaren arabera, zein dira artisten egoitza bat hartzen duen hiriak lortzen dituen onurak?**

- a. Hiriaren biziberritzea.
- b. Goi-mailako ikerketak lortzea.
- c. Baliabide ekonomiko esanguratsuak eskuratzea.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**69. Sorkuntza-fabrika bateko *bottom-up* ereduak zeri egiten dio erreferentzia?**

- a. Aurrera egin ahala bere burua asmatzen ari den espazio-proiektua. Beharrezko egituraketaren eta inprobisazioari lekua uzteko borondatearen arteko oreka bilatzen du.
- b. Kudeaketa pribatuko eredu.
- c. Gizartearen eskariz bultzatutako ekimenak gehitzearen ondoriozko eraketa-prozesua.
- d. Erakunde publiko batek dauden gizarte-eskariei erantzunez bultzatutako eratze-ekimena.

**70. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak zerbitzuen zeharkako kudeaketa jasotzen du. Zein modalitateri dagokio kontratistak administrazio publiko titularrari ordaindu behar dion zerbitzua edo ekipamendua ustiatzeko kanona ezartzea?**

- a. Zeharkako kudeaketa.
- b. Ituna.
- c. Administrazio-emakida.
- d. Ekonomia mistoko sozietatea.



**71. «Tailerismoa» (tailerrari loturiko jarduera), esparru afizionatu gisa ulertuta, hizkera artistikoen espazio oso oinarritzkoa, espezializaziorik nahi ez duena, tamaina ertaineko udal baten kultur ekintzarako dekalogoaren zein helburutan kokatzen da?**

- a. 5. helburua: hizkuntza gutxituak normalizatzen laguntzea.
- b. 8. helburua: udalaren kultur politikak herritar guztiak aintzat hartzen dituela bermatzea.
- c. 3. helburua: kultur sorkuntza edo sormena sustatzea.
- d. 9. helburua: tokiko komunikabideen garapena ahalbidetzea.

**72. Komunikazio-helburuen artean, nola deritzo produktuari edo markari erakundeak egotzi nahi dizkion ezaugarri egonkorren eta iraunkorrenen multzoari?**

- a. Posizionamendua.
- b. Markaren izena edo nabaritasuna aitortzea.
- c. Produktu edo marka baten irudia.
- d. Identitatea.

**73. María José Quero Garvillak komunikazio-prozesuari eta mezuari buruz egindako txostenaren arabera, zein mezu motari buruz ari gara produktuaren inguruko mundu bat , lotura sinboliko eta emozional ez osatua, transmititzen denean?**

- a. Unibertso-mezua.
- b. Emaidza-mezua.
- c. Kostu-mezua.
- d. Produktu-mezua.

**74. Jaume Colomer Vallicrosaren txostenaren arabera, publiko helduen kasuan, ondorengo faseetatik zein konbinazio sartzen da publiko aktiboen makrokategoriaren barruan?**

- a. Publiko erregularrak, noizbehinkako publikoak, eskari latentea duten publikoak.
- b. Noizbehinkako publikoak, publiko hasi berriak, eskaririk ez duten publikoak edo eskari negatiboa dutenak.
- c. Publiko erregularrak, noizbehinkako publikoak, publiko hasi berriak.
- d. Lagunak edo lankideak diren publikoak, publiko erregularrak, eskari latentea duten publikoak.



**75. Jaume Colomer Vallicrosaren txostenaren arabera, eskaririk ez duten publikoei kultur praktika jakin batekiko interesa pizteko, aukera hauetako zein EZ da gomendagarria?**

- a. Arreta erakartzea.
- b. Kultur praktika batekiko interesa piztea.
- c. Praktika kultural baten edukien analisi kritikoa planteatzea.
- d. Lehen esperientzia kultural batean parte har dezaten saiatzea.

**76. Roberto Gómez de la Iglesiaren «Manual Práctico para la búsqueda de patrocinio» liburuaren arabera, zein da hauen artean baieztapen zuzena?**

- a. Babesletza-txostenak/proposamenak luzea izan behar du, eranskinak alde batera utzita.
- b. Babesletza-txosten on bat egiteko, beharrezkoa da aldez aurretik enpresa babeslearen berri izatea.
- c. Normalean, babesa enpresa babeslearen premia espezifikoek bultzatzen dute, proiektuen eskaintzak baino gehiago.
- d. Babesa emateko aukera bakarra balizko enpresa babesleekin zuzeneko bidea erabiltzea da.

**77. Roberto Gómez de la Iglesiaren «Manual Práctico para la búsqueda de patrocinio» liburuaren arabera, ondorengo kontrapartidetatik, zein EZ da publizitate-komunikazioaren eremukoa?**

- a. Pentsako iragarkietan modu grafikoan agertzea.
- b. Babestuaren irudi grafikoa erabiltzea babeslearen sustapen-materialetan.
- c. Aparkalekuan enpresaren logoa duten banderatzokak jartzea.
- d. Bideo interaktibo baten karatularen barruan sartzea marka.

**78. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, zein da lehentasunak adierazten dituzten eta esku hartzeko borondatea adierazten duten gidalerro nagusien multzoaren definizioa?**

- a. Programa.
- b. Plana.
- c. Proiektua.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.





**79. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, ondorengo baieztapenetatik, zein da zuzena?**

- a. Proiektu bat ondo diseinatzea baliabide ekonomiko nahiz profesional erabilgarriak dituzten erakundeentzat pentsatuta dago batez ere.
- b. Zenbat eta baliabide ekonomiko gutxiago izan, orduan eta eskakizun handiagoa dago proiektua ondo garatzeko.
- c. Baliabide mugatuak dituen entitate batek ez du hasieratik proiektuaren diseinurik egin behar. Proba-errore sistemaren bidez egingo du.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**80. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, kultur proiektu bat diseinatzeko eskemaren zein fase edo bloketan kokatzen da proiektuaren kudeaketa ekonomikoa eta finantzarioa?**

- a. Proiektuaren ekoizpena.
- b. Proiektuaren testuinguru-oinarriak.
- c. Proiektuaren definizioa.
- d. Proiektuaren diagnostikoa.

**81. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, ze termino erabiltzen da batez ere plangintza estrategikoan proiektu baten helburuari buruz hitz egiteko?**

- a. Xede-taldea.
- b. Abiapuntua.
- c. Hipotesia.
- d. Xedea.



**82. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, museotan egindako azterlan batean (Etnographie de l'exposition, L'espace, le corps et le sens, Paris 1983), bisitarien profil desberdinei animalia-talde baten izena jarri zitzaien, bakoitzaren izaeraren arabera. Hala, zein pertsona mota sartzten da «tximeleta-taldea»ren barruan?**

- a. Museora denbora gutxi izanik joaten dena eta obra nagusiak ikustea baino ez zaiona axola.
- b. Mesfidantzaren eta errezeloaren artean mugitzen dena museo-espazioaren luze-zabalean.
- c. Museoa modu ordenatu eta diziplinatuan bisitatzen duena.
- d. Museoa bere erara bisitatzen duena, erakundeak gaia modu logiko eta ordenatuan aurkezteko egindako ahalegina kontuan hartu gabe.

**83. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, zein motatako helburua da gizartearen egile klasikoekiko interesa areagotzea?**

- a. Helburu espezifiko bat.
- b. Helburu orokor bat.
- c. Helburu partzial bat.
- d. Ez da helburu bat.

**84. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, zein da haurtzaindegi batek museo baten barruan betetzen duen funtzioa?**

- a. Jarduera osagarri bat.
- b. Zerbitzu edo jarduera eratorri bat.
- c. Jarduera nagusi bat.
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

**85. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, beste zer modutara deitzen zaio kronograma bati?**

- a. Gantt diagrama.
- b. PERT diagrama.
- c. Roy diagrama.
- d. Pareto diagrama.



**86. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, Roger Harrisonen erakundearen zein ideologiatan kokatzen du irabazi-asmorik gabeko erakunde bat antolatzea?**

- a. Botereari begira jartzea.
- b. Pertsonari begira jartzea.
- c. Zereginari begira jartzea.
- d. Funtzioari begira jartzea.

**87. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, ondorengo baieztapenetatik, zein EZ da zuzena?**

- a. Komunikazio-estrategia batek publiko berriak garatzeko plan bat izan dezake eta izan behar du, kasuaren arabera.
- b. Komunikazioaz arduratzen diren pertsonen zain egon behar dute beren ingurunera mezuak igortzeko eta inguruan dabilen informazioa jasotzen jakiteko.
- c. Identitate korporatiboa gure proiektuak gizarteari begira dituen ezaugarrien multzoa da.
- d. Komunikazioaren kapituluaren barruan ez dugu inoiz sartuko prezioen politika.

**88. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, ondorengo baieztapenetatik, zein da zuzena?**

- a. Gauzazko ekarpenak proiektu baten aurrekontuan baino ez dira islatzen, gastuen atalean.
- b. Zero oinarriko aurrekontuaren helburua da aurrekontu bat ez egitea proiektu beraren aurreko edizioetako aurrekontuan ukituak bakarrik eginez.
- c. Aurrekontu batek gastuen zerrenda bat du, proiektuaren eta diru-sarreraren eta ordainketen kontrolaren moneta-unitatetan adierazia.
- d. Aurrekoetatik bat ere ez.



**89. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, ebaluazio-metodo orokorren artean, zeinek egiten du konparazio bat modu berean edo antzekoan esku hartu den testuinguru desberdinen artean?**

- a. Ebaluazio esperimentalak.
- b. Gogoeta bidezko ebaluazioa.
- c. Zeharkako ebaluazioa.
- d. Iritzi-ebaluazioa.

**90. David Roselló i Cerezuelaren «Diseño y evaluación de proyectos culturales. De la idea a la acción» argitalpenaren arabera, ebaluazio-prozesuaren gidoiari dagokionez, zelan neurtzen da eraginkortasuna ebaluazioaren garapenean?**

- a. Eraitzen ebaluazioa.
- b. Prozesuen ebaluazioa.
- c. Eraginaren ebaluazioa.
- d. Ebaluazio ekonomikoa.



## **ERRESERBAKO GALDERAK**

**91. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eta bakoitzaren lurralde historikoaren eremuan, zein dira foru-administrazioei dagozkien eginkizunak?**

- a. Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- b. Zehatzeko ahala egikaritzea.
- c. Sexuaren ziozko bereizkeria-egoerak ikertu eta antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- d. Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez foru-eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.

**92. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan xedatutakoaren arabera:**

- a. Ordezkaritza orekatutzat joko da, egoera edo errealitate batean, bere osotasunean hartuta, bi sexuak % 40tik gora ordezkaturik daudenean.
- b. Ordezkaritza orekatutzat joko da, egoera edo errealitate batean, bere osotasunean hartuta, bi sexuak gutxienez % 50ean ordezkaturik daudenean.
- c. Salbuespen gisa, ordezkaritza orekatuaren irizpidea ez aplikatzea justifikatu ahal izango da sexu-etako batean behar beste pertsona ez badaude organoan parte hartzeko eskumena, gaikuntza edo prestakuntza egokia dutenak.
- d. Salbuespen gisa, ordezkaritza orekatuaren irizpidea ez aplikatzea justifikatu ahal izango da, Lurralde Historikoko foru-sektore publikoak jardun behar duen sektorean edo eremuan sexu-bietako baten presentzia %60ra heltzen ez denean.



**93. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, zein kasutan izango da Estatuko zuzenbidea autonomia-erkidegoetako zuzenbidearen osagarri?**

- a. Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duen gai guztietan.
- b. Autonomia-estatutuek berariaz hala aurreikusten duten kasuetan bakarrik.
- c. Inoiz ere ez.
- d. Kasu guztietan.

**94. Kontuan harturik zer ezarrita dagoen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 60. artikuluan, justifikazio-kontu erraztua dirulaguntza justifikatzeko balio juridikoa duen dokumentua izan daiteke, betiere horrela ezartzen bada dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan, honako zenbateko hau baino gutxiagoko dirulaguntzetan:**

- a. 100.000 euro.
- b. 60.000 euro.
- c. 90.000 euro.
- d. 120.000 euro.

**95. Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 2ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, honako hauetatik, zeintzuk EZ dira jabetza intelektualaren xede?**

- a. Arkitektura-obren proiektuak.
- b. Lege- edo legebiltzar-xedapenak.
- c. Auzitegi-txostenak.
- d. Jatorrizko obren itzulpenak.

**96. Kulturaren balio publikoari dagokionez, zein erpin edo gailurretako baloretzat jotzen dira aniztasuna, bizitasuna, oparotasuna, onura eta jasangarritasuna?**

- a. Intrintsekoa.
- b. Instituzionala.
- c. Instrumentala.
- d. Soziala.



**97. Esku hartzeko tresnen esparruan, zer dira kultura-txeke edo -bonuko politikak?**

- a. Zerga-pizgarria.
- b. Zerbitzu-ematea.
- c. Zuzeneko laguntza ekonomikoa.
- d. Zeharkako laguntza ekonomikoa.

**98. KEA aholkularitza-enpresaren zirkulu zentrokideen ereduaren arabera (2006), zer jasotzen du ereduaren lehen zirkulu edo nukleo nagusiak?**

- a. Kultur industriak.
- b. Sormen-industriak.
- c. Lotutako arteak.
- d. Arteak eta ondarea.

**99. Zein dira kultura-kontsumoa sustatzeko politika espezifikoak?**

- a. Kultura-klubak, kolektibo espezifikoari zuzendutako sarbide-politikak eta txeke unibertsaleko politikak.
- b. Txartel kulturalak, txeke zuzenduen politikak eta prezio-politikak.
- c. Prezio-politikak eta txeke zuzenduen politikak.
- d. Eskaintza handitzea eta kolektibo espezifikoari zuzendutako sarbide-politikak.

**100. Kulturara iristeko hezkuntza-oztopoak arindu egin daitezke, eskaintzatik erantzun batzuk emanda. Zein dira erantzun horiek?**

- a. Kultur eskaintzan diruz lagundutako prezio-politikak.
- b. Kultur eskaintza egokitzea zailtasun sensorialak gainditzeko (zeinu-mintzaira, brailleko testuak, etab.).
- c. Programazioak maila desberdinetara egokitzea (batez ere eskolako eta familiako ikusleentzat).
- d. Hizkuntza-oztopoak hausten dituzten euskarriak.